


VILLA SAN BERNARDO
C MAILA**LA FE PASEALEKUA 51-55****Ramon Kortazar, 1908.****Deskribapena**

Etxeak proportzio kubikoak dauzka, eta sarrerako fatxada pasealekuarekiko lerroatuta dauka, bide horrek bira hartzen duen lorategi osoa libre utziz. Partzela hau ibarbidearekiko kota horizontalagatik nabarmentzen da, nahiz beti dagoen sarrerako sestra gaineko bi solairuen eta lorategi gaineko hiru solairuen artean antzematen den desnibel bat. Desnibel hori argi eta garbi ikusten da fatxadetan, ezponda formako basamentua baitaukate, kuxinduaren simulazioa egiten duen goiko atalekoa baino neurri handiagoko aparailu batez. Konposizioaren motibo nagusia pabiloi estalki batek goia ematen dion dorrea da, ohiko elementua inolaz ere mende hasierako udaldiko bizitegietan, eta dagoeneko ikusia La Fe pasealekuko beste zenbait villatan. Bao buru eta barrenetan emokatu eta pintaturik egin xehetasunak nabarmentzen dira, eraikuntzako trazadura eta formaz eginak, ate nagusiko azpadura-balkoiarekin eta lorategiko begiratokiekin batera. Soluzio asko dauzka baoetarako, altueran desfasatutako baoak dauzkan eskaileraren kasu berezia barne. Azpimarratzekoa lau isurkiko estalkiko frisoaren eta erremateko teilatu-hegalaren multzoa, arrapala-txapitula batzuku direla bertan.

C mailaren berriazko babes araubidea

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: apaindura eta testura emokatuak, harrizko eta zurezko elementuak, leiho eta balkoietakiko burdin lanak, estalkiak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzekak: ez.